

EGOKITZE IKASTAROA, ENPRESA ZIENTZIETAKO DIPLOMATURA ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO GRADURA (UPV/EHU) MOLDATZEKO (UPV/EHUK onartua eta ANECA eta UNIQUAL agentziek ziurtatua)

1. IKASKETEN DESKRIBAPENA

UPV/EHUKo Ekonomia eta Enpresa Fakultateak (Arabako atala) beren titulazioa egokitze ikastaroa eskaintzen die Enpresa Zientzietako Diplomatura duten pertsonei, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua eskura dezaten.

2. SARRERAKO PROFILA

Ikastaro honetan sartzeko, ezinbestekoa da Enpresa Zientzietako Diplomatura edukitzea.

3. EGOKITZE IKASTAROAREN IRAKASKUNTZA PLANGINTZA

Aurkeztutako proposamena UPV/EHUK onartu eta ANECA Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak zein UNIQUAL agentziak ziurtatu dute, eta UPV/EHUKo Ekonomia eta Enpresa Fakultatean ematen da (Arabako atala), 2012-2013 ikasturtetik.

Gaitasunak, ikaskuntzaren emaitzak, metodologiak eta ebaluazioa bat etorriko dira titulazio osoan ezarritakoekin. Hala eta guztiz ere, egokitze ikastaroan integratutako prestakuntza osagarria diplomatuei zuzenduta dagoenez, eta beren ikasketetan gaitasun jakin batzuk landuak dituztenez, ikastaro hau osatzen duten gaitasun, emaitza, metodologia eta ebaluazioa diplomatu profilaren araberakoak izango dira.

Egokitze ikastaroa maila bakarrekoa da eta 60 ECTS kreditu ditu, honela banatuta:

a) 30 ECTS kreditu nahitaezko irakasgaiei dagozkie

- *Kontabilitate Analisia (6 ECTS): 1. lauhilekoa*
- *Zuzendaritza estrategikoa: Enpresaren politika (6 ECTS): 1. lauhilekoa*
- *Zuzendaritza estrategikoa: Enpresa Hazkundera eta Garapena (6 ECTS): 2. lauhilekoa*
- *Ekonometria (6 ECTS): 1. lauhilekoa*
- *Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza (6 ECTS): 2. lauhilekoa*

b) 12 ECTS kreditu Gradu Amaierako Lanari dagozkio

Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegia aplikatuko da, UPV/EHUK eta Fakultateko Batzarrak onartutakoa.

c) 18 ECTS kreditu hautazko irakasgai dagozkie

Ikasleak hautazko 18 ECTS kreditu egin beharko ditu, uneko ikasturtean eskaintzen diren irakasgaien artean aukeratuta. Enpresetan borondatezko praktikak ere egin ahal izango ditu hautazko kredituak amortizatzen (gehienez 18 ECTS) eta jarduera espezifikoengatik kredituak aitortzeko eskatu ahalko du (gehienez 6 ECTS).

Gainera, gradua eskuratzeko, "Atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna" ziurtatu beharko du, honako bide hauetako baten bitartez:

- Diplomaturan edo Egokitze ikastaroan bi irakasgai atzerriko hizkuntza batean egin izana (enborrekoak eta/edo nahitaezkoak edo hizkuntzen trebakuntzan espezifikoak).
- Lauhileko batean, gutxienez, truke programa batean parte hartu izana, gaztelania ez den hizkuntza duen herrialde batean.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 mailako ziurtagiri ofiziala edukitzea.

4. KREDITUAK AITORTZEKO PROZEDURA

Enpresa Zientzietan diplomatuen titulazioa Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradura egokitze taula osatze aldera, UPV/EHUko Enpresa Zientzietako Diplomatura hartu da erreferentzia gisa (2003 Plana, 2003ko apirilaren 23ko BOE); hortaz, plan horretan ikasketak amaitu dituzten diplomatuentzat, kredituen aitortza ofizioz eta era automatikoan egingo da. Era berean, egokitze ikastarorako sarbidea ematen duen titulazioko diplomatuek aukera izango dute graduan hautazko kredituen aitortza eskatzeko, baldin eta behar baino hautazko kreditu gehiago eskuratu badituzte.

Enpresa Zientzietako gainerako diplomaturetan, Fakultateko Akademia Antolakuntzako eta Ikasketak Baliozkotzeko Batzordea arduratuko da graduko ikasketa planera egokitze prozesuak erabakitzeaz.

5. SARBIDEA ETA ONARPENA

Guztira, 75 plaza eskaintzen dira eskolako hizkuntzetan (euskara eta gaztelania). Egokitze ikastaro honetan sartu ahalko dira Enpresa Zientzietako Diplomatura egina duten guztiak.

Onartua izateko irizpideak: Ikastaroan sartzeko baldintza betetzen duten pertsonen eskaerak ordenatzeko balorazio irizpideak hauek dira: beren prestakuntza proposatutako egokitze ikastaroaren diseinura egokitzea; eta espediente akademikoko batez besteko nota. Irizpide horiek kontuan hartuta, eskabidean honela ordenatuko dira:

- Lehendabizi, UPV/EHUko Enpresa Zientzietan diplomatutakoak, horien aurretiko prestakuntza bat datorrelako proposatutako egokitze ikastaroarekin (ANECAk ziurtatutako ikastaroaren espedientean jaso legez); lehentasunez, ikasketak 2011/2012 ikasturtean amaitu dituztenak, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziaturako 2. zikloan sartzeko aukerarik ez dutelako. Espediente akademikoa izango da eskaerak antolatzen irizpidea.
- Bigarrenez, beste ikastegi eta unibertsitate batzuetan Enpresa Zientzietako Diplomatura egin dutenak. Espediente akademikoa izango da eskaerak antolatzen irizpidea.